

## 2007ko Baterako Fondoaren etekinen banaketa

Lehengo Batzarrak honako erabaki hau hartu zuen: aurten egokitutako saria pertsonako 13,65 eurokoa izan denez gero, loteria jokatu dutenen artean 10 euro banatzea, eta gainerakoa beste soberakinekin bildu eta batera jokatzeko (31x3,65=113,15 euro), berdin Loteria, Lotoa, kiniela edo kirol apustuak izan.

Beraz, 2008ko maiatzaren 7 edo 8ko R. MADRIL-BARÇA partidaren aurretik, batera jokatu ditugun zenbakiak jakinaraziko ditugu penyan.

Banatu beharreko 10 euroak jasotzeko, penyaren egoitzara etorri besterik ez duzu (maiatzaren 15a baino lehen). Egun horretatik aurrera, nahi duenak, kopuru hori 2008ko Baterako Fondoan utzi ahal izango du.

## BAZKIDEEN KUOTAK 2008rako

Oraindik bazkide txartela berritu ez dutenei gogorarazi nahi diegu oraintxe dela hori egiteko unea, izan ere, urteroko kuotak dira, eta berez urtea hastearekin batera berritzeak.

### Hona hemen KUOTAK:

**HELDUAK - 2008: 40 euro    HAURRAK - 2008: 6 euro**

FAMILIENTZAKO KUOTA: kuotaren %50 / Heldua: 20 euro – Haurra: 3 euro.

Oso garrantzitsua: Ordainketa, izena adieraziz, hauetako batean egin:

CAJA VITAL KUTXA: 2097-0153-29-0008042129

La CAIXA : 2100-1930-24-0200006766

## Penyen Munduko Topaketa ("Trobada") L'Hospitalet 2008

Bai, azkenean heldu zen Trobada egiteko eguna; lehengo asteburuan, apirilaren 5 eta 6an, bildu zen, hasiera batean 2007an egitekoa zen arren.

Gure penya ondo baino hobeto ordezkaturik egon zen, hala Zuzendaritza Batzordeko kideak, nola beste bazkideren bat joan baitziren.

Presidenteak TROBADAN zehar telebistan egindako adierazpenak ikusi eta entzun ondoren, FUTBOLeko eta SASKIBALOIko taldeek zenbait unetan igaro duten egoera larria erabakigarria izan da bilgune honetan; beraz txarto hasi zen daten aldaketa tarteko, eta okerrago amaitu Getaferen aurka hutsean berdinduta; ondorioz jauzi kualitatiboa izan da kritiketan... (Nork bere erantzukizuna izango du). Baina dena bere onera itzuliko da Moskutik Txapeldunen Liga eskuratuta bueltatzen garenean, ZIUR.

BI HILABETEKO INFORMAZIO ALDIZKARIA 89. zenb. 2008KO apirila-maiatza  
**EUSKOBARÇAREN INFORMAZIO ALDIZKARIA**



**P.B. VITORIA-GASTEIZ "EUSKOBARÇA"**

URUGUAI K., 7 BEHEA    TEL/FAXA: 945-242562

Ohorezko lehendakaria: Jose Alcalde Moral

WEB GUNEA: [www.euskobarca.com](http://www.euskobarca.com)    E-posta: [penya@euskobarca.com](mailto:penya@euskobarca.com)

## Ez dagoenean, egon...

Denboraldi amaiera zirrargarri baten aurrean gaude, irabazteko gogorik ez dugula ematen badu ere... liga txapelketa eskuratzeko aukera dugu, eta ezusteko hondamendia gertatu ezean (Barçaren jarraitzaileok badakigu hori zer den), Txapeldunen Ligako finalerdiak ia ziurtaturik dauzkagu. Kopan bizi izandako etsipenaren eta Ronnie auzi amaigabearen ostean, hainbeste lesio jasaten ez badugu, denboraldi bukaera, oso gertu daukaguna, ezin interesgarriagoa izan daiteke. Hori bai, ea esku artean txapeldun tituluren bat gehiago daukagun, bestela garbiketa ederra egon liteke, entrenatzailearengandik hasita.

Geure buruaz ari garela, lehengo martxoan bazkideen ohiko batzarra egin zen penyako egoitzan; bertan, aurreikus zitekeen bezala, kontu balantzea onartu eta aurrekontuari oniritzia eman zitzaion. Beste gai batzuk ere jorratu ziren, hala nola Gabonetako loteriaren kontua, inauteriak, Barçak oparitu dizkigun jokalariek sinatutako elastiko batzuk (agian zozketa bidez banatuko ditugunak) eta abar. Bilkurari amaiera emateko penyak bertaratuei eskaini zien otordu xume bat egin zen.

Batzarrean landu ez zen kontu bat, penyarekin batera, hari lotutako elkarte gastronomiko bat eratzeko aukera da; alabaina, gai horretaz hausnartu nahi dugu, aldizkari honetako orrialdeetan aurrena eta penyako egoitzan egin beharreko bilkura batean gero. Zenbat jende prest dagoen jakiteko galdeketa egingo dugu, eta hortik aurrera urak egingo du bide.

Ez dugu ahaztu behar saskibaloiko taldeak ere Madrillgo lau finalerako txartela eskuratzeko jo eta ke ahaleginetan diharduela, Duskok klubetik ihes egin ondoren. Ea kirol honetan gure taldeak garai bateko sasoi ona berreskuratzen duen, ahazteko moduko urtea bizi izan baitugu orain arte. Juan Carlos Navarrok alde eginda, ezer ez da berdina izan... Ikusi egin behar.

Denok bildu nahi genuke, noski, aurki urdin eta grana koloreak protagonistak izango direneko Europako final handi batez gozatzeko.

P.B. EuskoBarça

## BARÇAren 2008ko elastikoaren zozketa, Jokalariek SINATUTA

Zorionez, Barçako jokalariek sinatutako aurtengo elastiko batzuk eskuratu ditugu. Penyan euretako bat izateko aukera dugula aprobetxatuz, dauzkagun besteekin batera, bigarren janzkerako beste bat (urdina), SINATUTA, zozketa bidez banatzea erabaki dugu, lehengo erara. Bazkide bakoitzak, aldez aurretik zenbakiko 2 euro ordainduta, gehienez 5 zenbaki hautatu ahal izango ditu (00tik 99ra), eta baldin eta bere txartelen bat **R. MADRIL-BARÇA partida jokatzan den eguneko (2008ko maiatzaren 7 edo 8a) ONCEn zozketan ateratako emaitzekin bar badator**, opari preziatu hau eramango du.

Bazkide bakoitzari 5 zenbaki emango diogu gehienez, parte hartzeko aukera ahalik eta bazkide gehienek izan dezaten.

Badakizu, beraz, elastikoa ikusi edota zozketan esku hartu nahi baduzu, argi ibili, laster batean egingo baita. Eta bitartean elastikoa penyan ikusteko parada duzu, zeuri ahogozoa jautzeko.

Iritzi artikulua ..

### Ronaldinho ???

Barçan beti munduko jokalaririk onenak aritzen direla esan zuenak arrazoi zuen, baina garrantzitsuena erakundea osatzen duten pertsonak baino areago erakundea bera dela esan zuena are zuzenago zegoen.

Zaletu gehienok beste behin etsipen handiz bizitzen ari gara oraingo egoera, betiereko irribarrearen eta gol nahiz jokaldi magikoen mutilarengan barçazale guztiok eredu edo jarraibide bat ikusi genuelako, garai batean beste hainbat, orain -bakar bat ez ahazteko- aipatuko ez ditudanak, izan ziren bezala.

Lesioak direla, Afrikako kopa dela edota arduradun teknikoek erabakiak tarteko direla, erdipurdiko Messi, erdipurdiko Eto'o, erdipurdiko Deco eta erdipurdiko beste zenbait jokalarik ikusi ditugun liga honetan, denok sasoi betekoa, bikaina, hitz batean figura, ikusteko irrikaz geunden: Ronaldinho.

Eta zer geratu zaigu? Ez dakit, bada, ziur aski klubak, jarraitzaileok, penyakideok, aurtun Ronnie izan nahi zuten eta datorren urtean... batek daki, puntako beste jokalariren izan nahiko duten umeek pentsatzen genuenaren laurdena baino gutxiago. Agur, Ronaldinho, bejondeizula, zoazen lekura zoazela, baina gogoan izan ezazu, zeu ikaragarri handia izanda ere edo natilla asko iragarrita ere, klub baten historia egin duzu handia, ez zeurea.

Visca Barça.

Emilio

Oh.: Danone natillen madarikazioak indarrean dirau, iragarkia egiten duena.....

## EUSKOBARÇAren 2008ko Ohiko Batzar Orokorren laburpena

Joan den martxoaren 5ean gure penyaren 2008ko batzar orokorra egin zen.

Penyaren egoitzan 15 bazkide zeudela, aurreikusitako gai zerrendaren arabera gauzatu zen.

Mota honetako bilkuretan ohikoaenez, 2007ko kontu egoera aurkeztu zen, bai eta kontuok aho batez onartu ere. Era berean, lehengo urtean, 2007an, penyak gauzaturako jardueri buruzko txosten orokorra aurkeztu zen; bertatik egoitzan burututako lanak eta Jose Alcalde Ohorezko Presidente izendatu izana dira nabarmentzekoak.

Geroago, 2008rako aurrekontuak aurkezteari ekin zion zuzendaritzak, eta berauek ere aho batez onartu zituzten.

Galde-eskaeren atalean, penyak urtero Bartzelonara bidaia bat antolatzeko edota bertara joatea errazteko beharra adierazi zuten; hortaz, datorren denboraldirako (2008-09) atal horretara bideratutako diru kopuru bat bereiziko dugu, urtean behin gure penya **ofizialki** Camp Nou zelaian izan dadila erraztu eta sustatze aldera. Orain arte hainbat bazkide beren kabuz sarri joan izan dira, baina Bartzelonara penyaren autobusa bidaltzea hain zaila izanik, ekimen xume honen bitartez partida jakin bat zehaztu nahi dugu, beti ere LARUNBATEAN, bidaiara alaitz bazkide gehien bildu daitezten. Inoiz penyak antolatu dituen bidaietan (azkena 2006ko urtarrilean) esku hartu duzuenok dakizueenez, partidua hasi aurretik harrera egiten zaio penyari, FCBko zuzendaritza taldeko kide batzuekin. Hori horrela, taldeko bidaia horretara doazenek penyaren ordezkari gisa parte hartuko dute.

Eta batzarrari amaiera emateko otordu xumea izan genuen. Horren ondoren batzarra bukatu egin zen.

Bai 2007ko balantzea –berriz ere superbaita eman duena-, bai 2008ko aurrekontua bazkideen esku daude penyako iragarki oholean, baina baten batek euren ale bana lortu nahi badu, posta elektronikoz bidaliko dizkiogu berak ematen digun helbidera. Nahikoa du horiek eskatzea.

Datorren urteko batzarrean elkar ikusi arte.

Penya bere web gunean

[WWW.EUSKOBARÇA.COM](http://WWW.EUSKOBARÇA.COM)

Azken berriak, aurreko aldizkariak eta askotariko informazioa web gunean.

## Barçako produktuen denda Penyan

Martxoaren amaieratik Barçako produktuen ale banaka batzuk ditugu aukeran; lagun askok sarritan eskatu izan dizkigutenez halako gauzak, geure kasa mugitu gara edota Corte Inglesera joan gara, etxeko txikienen gogoko zerbait erostekotan.

Hori dela eta, neskato eta mutikoen lehen jaunartzeei begira zenbait gai salgai jartzea erabaki dugu, eta, nola ez, urtebetetze egunetan oparitzeko edota beste edozertarako. Izan ere, Barçarekiko zaletasuna sortzeak eta zabaldu ahal izateak ez du preziorik.

Hortaz, etorri penyaren egoitzara eta bertan gaiok ikusi ahalko dituzue. Ez galdu aukera, denda arruntetan prezio bikoitzean aurkituko dituzue eta.

Gaia	Euroak
Messiren baloia	6
Barçaren txaleko alderanzgarria	6
Barçaren eskuoihal sorta	6
Barçaren fardela	6
M/C Barça MD poloa	3
Barçaren Miro erretilua	2
2006ko Parisko Finalaren DVDA	2
Barçaren garagardo pitxerra	2
Ronaldinho	2
Ardi-larrua	1
2005eko Txapeldunen Ligako bandera	1
FCB Campions eskumuturrekoa	1
FCBren banderatxo ofiziala	0,5
Eto'oren eskumuturrekoa	0,5

## EUSKOBARÇAREN 2008ko txartelen banaketa

Aldizkari honekin batera, aurtengo kuota ordainduta daukanak bere penyakide txartela jasoko du. Bestela, jar zaitetze penyarekin harremanetan, balizko akatsa zuzendu ahal izateko.

## ADSL – WIFI Penyan

Lehengo ostiraletik, martxoaren 27tik, aurrera, ADSL WIFI bidezko Interneterako sarbidea daukagu Penyan.

Ordenagailu bat daukagu Penyaren esku, gure lokala irekita dagoenean erabiltzeko moduan, kontsultak egiteko, partidak edo bideoak ikusteko, prentsa irakurtzeko, posta elektronikorako edota norberak behar duen guztirako. ERABIL EZAZU, HORRETARAKO DAGO ETA.

Era berean, WIFI sarbidea dagoenez, norbaitek ordenagailu eramangarria, Pda edo WIFI telefonoa badu, Penyan sartu ahal izango da interneten. Eskatuko dizuen pasahitza penyako iragarki oholean idatzita dago.

## Penyan internet erabiltzeko ikastaro PRAKTIKO azkarra

Penyan ADSL haria ezartzearekin batera, eta internet oso erabilgarria izanda ere aldi berean "ilun" samarra izan litekeela jakinda, amaraunaren benetako balioen berri jasotzeko eta penyatik dugun sarbide honi etekina ateratzeko, APIRILAREN 16an, ASTEAZKENA, ilunabarreko 8etan, ADSL haria erakusteko ikastaro laburra emango da penyan; horri esker, nabigatzeaz gain FUTBOLA zuzenean ikusteko, nork bere posta elektronikoa edukitzeko, youtube-ko bideoak ikusteko edota gure penyaren web gunean nahiz Barçaren beraren web gunean egindako azken aldaketak ikusteko aukera izango dugu.

Beldurra uxatzeko eta tresna esku artean behin ere edo ia inoiz erabili ez dutenei zuzendutako hastapen ikastaroa da, ematen dituen aukerez jabetu daitezen.

Zuen zain gaude; baietz zuek pentsatzen zenuten baino erabilpen gehiago aurkitu! Txunditu egingo zarete!.

## Penyako TABERNA

Penyako barra edo "taberna" lekuz aldatu dugunetik inolako tabernaririk gabe ari gara eta, beraz, autozerbitzu sistema erabiltzen dugu; alegia, norberak zerbait behar duenean sartu eta hartzea dauka, batez ere orain, penyaren atzeko aldean kokatuta dagoela aprobetxatuz; hartara eguneko partiduari begira egon daiteke, enbarazurik gabe.

Denok apur bat laguntzen badugu, penyako guztion onerako izango da; besteak beste, azkenaldi honetan partiduen ostean penya hain txukun geratzea dugu horren adibide. Mila esker keinu hauengatik.

## ELKARTE GASTRONOMIKO Ari buruzko galdeketa Azken eguna: 2008ko apirilaren 30a

Proposamen berria ez bada ere, azken batzarrean berriz ere mahai gaineratu zen gai hau. Gure penyaren egoitzari dagokionez, itxura berriagoa eman diogun arren, ez dugu arazo bat ahaztu behar: ez diogu behar besteko etekinik ateratzen urteko egun guztietan alokatuta daukagun lokal bati.

Behin baino gehiagotan, eta batez ere Txapeldunen Ligako iluntzeko partidetan edota larunbat gauekoetan, sukalde edo antzekoren bat izan dugu faltan; hori edukita ganorazko afaria egin genezake, telebistan Barça ikusten dugun bitartean. Zoritxarrez, gaur egun dugun tokiak ez digu halako zerbitzuak eskura izateko aukerarik ematen; halako instalazioak moldatzeko beharrezko baimenak eta lanak direla eta, asmo hori ez litzateke bideragarria izango, ez baita gauza bera mikrouhin labea izatea –egokitzapen berezirik behar ez duena– edo sukalde bat izatea, teilaturako zuzeneko tximinia eskatzen duen ke hustubide eta guzti...

Jarduera horretarako egokiagoa litzatekeen eta aukera nahiz zerbitzu gehiago ahalbidetuko litzatekeen lokal bat bilatzea izango genuke irtenbide bakarra, bera mantentzea garestiagoa izanda ere. Orain daukagun tokia alokaturik dagoela ikusirik, lokal egokiago horretara aldatzea izan liteke aukeretako bat. Zein, ordea? Ba, eskuharki itxita egoten diren Taberna edo Jatetxe ugarietakoren bat. Halako tokiek Ostalaritzarako eta, noski, Sukaldaritzarako, lizentzia eta baimena dauzkate; gure helburuetarako nahikoa litzateke hasiera batean sukalde txikia izatea. Horregatik, Tabernatik Txoko edo elkarte gastronomikorako (izenak ez du axola) aldaketa, maila apalago batera jaitea dakarrenez, bideragarri eta erraza litzateke.

Mota honetako lokala orain ordaintzen ari garena baino garestiagoa izango litzatekeenez, bazkideek zeresana izango lukete. Kontua ez da gastu berri hau bazkide guztien gain uztea –askok ezingo liokete aurre egin eta kuotek nabarmen egingo lukete gora–, batez ere lokal hori erabiliko ez luketen bazkide askorentzat, gaur egun egiten ez duten bezalaxe. Beraz, penyako bazkide guztien artean kopuru nahikoa bilatuko genuke, Elkarte Gastronomiko gisa antolatuko liratekeenak. Egoitza berrian oso argi egongo lirateke gauzak:

- Elkarte hau EuskoBarça penyaren Egoitza izango litzateke.
- Euskobarça penyak alokairu gisa oraingo zenbateko berbera ordainduko luke.
- Alokairuaren gainerako zatia elkarte gastronomikoan sartu nahi luketen bazkideek hartuko lukete beren gain.
- EUSKOBARÇA penyako bazkide guztiak mugarik gabe etorri ahal izango lirateke Barçaren edozein partidu ikustera, baita penyak zehazten dituen egunetan ere, **orain arte bezalaxe**.

- Aldi berean EuskoBarçako eta Elkarte Gastronomikoko bazkideak direnek egoitza erabiltzeko eskubidea izango lukete BARÇAREN partidarik ematen ez duten gainontzeko ordu eta egunetan, banaka, izan ere nor bere giltza izango luke lokalera nahi lukeenean etortzeko, beti ere ezarritako arauen barruan; bertan bazkariak, afariak, askariak, hamaiketakoak, bilerak edota elkarte gastronomikorako egokitzat jotzen dituen bestelako edozein jolas jarduera egin litzakete.
- Balizko egoitza nolakoa den (neurriei dagokienez) gutxieneko bazkide kopuru bat ziurtatu beharko litzateke bi erakundeetan (Penya eta Elkarte) lokala mantendu ahal izateko.
- Egoitza 40 eta 50 bazkaldarrentzako edukiera izango luke gutxienez, aldi berean ekitaldi bat baino gehiago gauzatu ahal izateko.
- Aurreikusten dugu gutxienez elkarte gastronomiko honekin engaiatutako 20 edo 25 lagun beharko liratekeela, hilean 25 eta 30 euro arteko kuota ordaindu beharko luketenak. Hasierako ordainketa berezi/fidantza bat egongo litzateke, proiektua abiarazteko erabilia, egitasmoaren berme gisa balioko lukeena.
- Elkarte askok jabetza araubidea badaukate ere, gero eta elkarte gehiago hileroko kuoten bitartez bideratzen dira, hartara guztiek ordaindu beharreko maileguetara jotzea eta bestelako gorabeherak saihestuko genituzke; ordainetan, inoiz ez genuke jabetzan izango, baina muga bakarra hileroko, seihileroko edo urteroko inplikazioa izango litzateke, ekarpena zenbateko maiztasunez egiten den.

Aldaketa ez genuke ORAINTXE gauzatuko, ezta hurrik eman ere; hasiera bateko Galdeketa egingo genuke aurrena, bideragarritasuna aztertzeko, edonola ere “hozkailean” izateko, eta zerbait aterako balitz, adi egoteko; ezein urrats eman baino lehen, ordea, erabakia hartzeko beharrezko bilera edo batzarrak egingo genituzke.

Beraz, egitasmo hau interesgarria iruditzen bazaizu, jakinarazi Gorkari zuzenean edota posta elektronikoz, edo bestela horretarako APIRILA amaitu bitartean penyan egongo den zerrenda erabiliz; horrela, benetan horrelako jautzia inoiz egiteko moduan egongo ginatekeen edo bestela penyaren oraingo lokalean jarraituko dugun.

Zer esanik ez, zuen iradokizun eta zehaztapen guztiak jasotzeko prest gaude; penyako kontu guztien antzera, goragoko “arauak” denon artean moldatu beharreko zirriborroa baino ez dira eta.

Esan bezala, hasiera batean interesatuta bazaude, guri eman horren berri, APIRILAREN 30a baino lehen, bazkideon jarreraz jabetzeko eta zerbait suertatzen bada adi egoteko (hori bai, presarik gabe: lan lasterra, lan alferra...)

Batek daki... Beharbada urte bete barru geure burua prestatzen ibiliko gara SAN PRUDENTZIO gure zaindariaren danborradan parte hartzeko...